

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## AGURAINGO UDALA

**Prozesu honetan onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda: iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozkoa, musika irakaslea (pianoa) plazari dagokiona**

Alkatearen 2024ko apirilaren 3an 43 Dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

Deialdiaren oinarriak 2022ko abenduaren 26ko ALHAOn (148. zk.) argitaratu dira, eta hutsen zuzenketa 2023ko martxoaren 15eko ALHAOn (31. zk.) eta deialdiaren laburpena 2023ko maiatzaren 11ko BOEn (112. zk.).

Amaitu da eskaerak aurkezteko hogei egun balioduneko epea, bai eta, hala badagokio, akatsak zuzentzekoa ere. Hori dela eta, honako hau

## EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onestea Aguraingo Udalean musika irakaslea (pianoa) plazaren hautaketa prozesuan (iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzekoa) onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

## ONARTUAK

IZEN-ABIZENAK	NAN	AUTOBALORAZIOAREN PUNTUAK
SAIZ MARCULETA, Miren Arantzazu	***5499**	94,50556
PERRIGO LARRAÑAGA, Anne	***0536**	80,00000

## BAZTERTUAK

IZEN-ABIZENAK	NAN	ARRAZOIA	AUTOBALORAZIOAREN PUNTUAK
---------------	-----	----------	---------------------------

Hamargarren oinarrian jasotakoarekin bat etorritz, deialdian plaza 1 sartu denez, autobalorazioan 80 puntu edo gehiago lortu dituzten eskaerak baloratu behar dira.

Bigarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek agirien bidez egiaztatu beharko dituzte eskaeran alegatutako merezimenduak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendu honek barnean hartzen ditu eskaeran alegatutako merezimendu guztiak, zortzigarren oinarriaren arabera ofizioz kontsultatu behar direnak izan ezik, eskatzaileak aurka egin ezean. Era berean, I. eranskina aurkeztu beharko dute, ofizioz kontsultatuko den informazioaren zerrenda eta adostasun/aurka egite eredia jasotzen dituen.

Hirugarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek adierazi beharko dute zein den deialdian parte hartzeko betekizun gisa erabiliko duten titulua, eta, hala badagokio, aurrerago egiaztatu beharko dute. Horretarako, II. eranskina beteta aurkeztu behar dute.

Laugarrena. Agiriak deialdia egin duen administrazioaren egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango dira, edo aurrez aurre, erakundearen erregistro eta herritarrentzako arretarako bulegoan. Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezartzen dituen tokietako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Bosgarrena. 9.2. oinarriaren arabera, baztertutako pertsonak merezimenduaren baloraziora aurkeztu ahal izango dira, bai eta euskara azterketa egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsioa aurkeztu dutela egiaztatzen badute. Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean errekurtsioa ebatzi gabe badago, kautelaz egin ahal izango dute euskara azterketa. Egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsioa ezestekoa bada.

Seigarrena. Esandako hautaketa prozesuan epaimahai kalifikatzaileetako kide hauek izendatzea:

	TITULARRA	ORDEZKOA
Epaimahaiburua	Alexander Rodríguez López	Pablo Martínez de Arbuló Echevarría
Bokala	José Javier Díaz Gómez	Olga Pascual Calle
Bokala	M <sup>a</sup> . del Carmen Rojo Pitillas	María Luisa Velasco Irusta
IVAPeko ordezkaria	Marta Ramírez Gómez	Ana López De Lacalle Eceolaza
Idazkaria	Eduardo Alday Galán	Javier Ortiz de Urbina Ugarte

Zazpigarrena. Ebazpen hau ALHAOn, erakunde honen iragarki-oholean eta udalaren web-orrian argitaratzeko agintzea.

url: <https://agurain.eus/eu/udala/iragarki-taula>.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bidearen, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan eskuduna den organoan, bi hilabeteko epean, aipatutako egun beretik aurrera. Ez dago bi errekurtsioak batera jartzerik. Aurrekoetz gain, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango du.

Era berean, epaimahaikide direnak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutako egoeretako batean badaude, edo deialdia baino lehenagoko azken bost urteetan izangaia prestatzen aritu badira, interesdunek edozein unetan errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Agurain, 2024ko apirilaren 15a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR

## I. ERANSKINA

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, kontsulta eginez dagokien erregistroetan, administrazio publikoen datu bitartekaritzarako plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundeetan.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak modu arrazoituan horren aurka egin badu eta tratamenduaren ardura duen organoak hori aintzat hartzen badu.

Modu arrazoituan aurka egiten duela adieraziz gero, adierazpen horrekin batera aurkeztu beharko ditu, nahitaez, kontsulta daitezen nahi ez duen agiriak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak ofizioz egiaztatuko ditu eta/edo espedienteetan sartuko ditu, interesdunak berariaz kontrakorik adierazi ezean, honako datu hauek (ikus zazpigarren oinarria):

- NAN/AIZ.
- Titulu akademikoak, unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak.
- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan inskribatutako euskara ziurtagiriak.
- IVAPen bidez (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).
- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak.

### DATUAK KONTSULTATZEKO ADOSTASUNA/AURKA EGITEA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ: .....),  
..... prozedurari dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU (markatu dagokiona):

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, ez nago eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen aurka.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, informazio hau kontsultatzearen aurka egiten dut:

- Titulu akademikoa.
- Euskarako hizkuntza eskakizuna.
- IVAPen bidez egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).
- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak.

Aurka egiteko arrazoiak:

.....  
.....

Agiri hauek kontsultatzearen aurka nago, eta neuk aurkezten ditut:

.....  
.....

....., .....(e) ko .....ren .....(a)

Sin.:

## II. ERANSKINA

### BETEKIZUN GISA AURKEZTEN DEN TITULUAREN ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ: .....),  
..... erakundearen .....deialdiari  
dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU:

Deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa..... titulua erabiliko dut,  
egun honetan lortua: .....

....., .....(e) ko .....ren .....(a)

Sin.: